

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Gure proiektua dantza eskola batean datza. Dantza eskola bat gara, baina, pertsonen osasunaz gain, gizakion ongizateaz gain, Lurraren osasun eta ongizateak ere kezkatzen gaitu. Kezka horretatik atera da, beraz, gure bi pasioak nahasteko proiektu hau. Eta zeintzuk dira gure bi pasioak? Dantza eta energia garbia.

Energia kopuru handiak sortzen dira ibiltzen garenean, korrika egiten dugunean, eta, noski, baita ere dantzatzen dugunean. Beraz, zergatik ez erabili energia hori argiak pizteko? Musika entzuteko? Energia garbiarekin guztiz funtzionatzeko? Gaur egun, hau posiblea da. Eta guk gure herrira ekarri nahi dugu. Beste energia garbi mota batzuk ere baloratu genituen, baina, tamalez, Zumaia ez da leku aproposena eguzkiaren energia lortzeko. Hala ere, lainoak daudenean ere dantza egin dezakegu. Eta gure oinkadekin energia elektrikoa sortuko dugu.

Baina, zerk egiten du hau posible? Lur zinetikoa da dantzaren bidez argiak dohainik piztea ahalbidetuko duena, eta asmakizun berri bat izan arren, jada martxan jarri dute munduko hainbat leku desberdinetan. Gipuzkoara ere ekartzeko energia garbia sortzeko modu dibertigarri hau, dantza eskola bat sortuko dugu.

Gure izena **DARGIA** da, eta energia dugun bitartean, guk nahiz gure ikasleok, argiak ez dira itzaliko. Hortan datza gure proiektua; mugimenduan, itxaropenean, errurik gabe piztutako bonbilletan eta zerbait sortuz lortutako irrietan. Dantzaren bidez piztutako argietan dago gure xedea, eta horrekin herri guzti baten kontzientziazioa lortu nahi dugu, etekin ekonomikoaz gain. Azken hau ere, noski, lortu nahi dugu. Baina modu berde batean. Eta, zer da gure oinkadekin sortutako energia erabiltzea baina berdeagoa?